

Pornonatiboak:

pornografiara bere sexualitatera
baino lehenago iritsi den belaunaldia



PORNONATIBOAK: PORNOGRAFIARA BERE SEXUALITERA BAINO LEHENAGO IRITSI DEN BELAUNALDIA

Internetek, eta, batik bat, telefono adimentsuak masiboki kontsumitzeak "pornografia berria" izeneko fenomeno bat ekarri dute. Izugarri hedatu da azken urteotan, zenbait ezaugarri esker: erraz lortzeko modukoa, anonimoa eta interaktiboa da, irudien kalitatea oso handia da, eta, batez ere, eskuragarria da. Interneten dena da debaldekoa, eta gaurko nerabeak goraldi digital horretan jaio dira. Horri gehitu egin behar zaio gaur egungo hezkuntza-sisteman ez dagoela fenomeno horri aurre egiteko tresnak eman ditzakeen hezkuntza afektibo-sexual arauturik.

"Pornonatiboak". Izen hori eman diete Lo que esconde el agujero. El porno en tiempos obscenos. (Zuloaren barruan zer dagoen. Pornoa garai lizunetan) saiakeran. "Hitz bat behar genuen bere sexualiterara baino lehenago pornografiara iritsi den pertsona-belaunaldi hori definitzeko", azaldu dute Analía Iglesiasek eta Martha Zeinek, saiakeraren egileek. Errealitatea da "eduki pornografikoak lehen aldiz eskuratzeko adina 8 urtera arte jaitsi dela, eta 14tik aurrera gutiz zabaldua dagoela horrelako edukien kontsumoa". Hala dio Balear Uharteetako Unibertsitateak egindako txosten batek, pornografiak nerabeengan duen eraginari buruzkoak. Lehenbiziko hartu-emana hain gazte izatearen arrazoia "adingabeek mugikorra izatea da", dio Carmen Ortek, analisi horren egileetako batek; "bertan, bilatu ez arren, pornografiarekin topo egiten dute".

Horri gehitu egin behar zaio gaur egungo hezkuntza-sisteman ez dagoela fenomeno

horri aurre egiteko tresnak eman ditzakeen hezkuntza afektibo-sexual arauturik. Ondorioz, pornografia da nerabeek duten informaziorik xeheena, beren lehen sexu-harremanak nolakoak izango diren jakiteko. "Arriskua ez da pornografia ikustea, baizik eta haien sexu-desira fikzioaren oinarri irreal, bortitz eta desorekatuen gainean eraikitzea. Eta pentsatzea ez dagoela zertan aintzat hartu beren baimena, beren desirak eta beren nahiak, edo gainerako guztienak", zehaztu du Catalina Perazzok, Save the Childreneko Hautzarro Politikak eta Sentsibilizazioa ataleko zuzendariak, erakunde horrek egindako (Des)información sexual: pornografía y adolescencia (Sexu-(des)informazioa: pornografia eta nerabezaroa) analisiaren aurkezpenean.

Egundoko estimulua

Online pornografia sexuaren egundoko estimulu bihurtu da. Edukiak eragin handia du burmuinean. Nikolaas Tinbergen Medikuntzako Nobel saridunak ikusi zuen animalia askok nahiago dutela artifizialki egindako emeengana (zurez egindakoak, handiagoak, kolore deigarriak margotuak, etab.) hurbildu, benetako emeengana baino. Estimulu bat jasotzen bada estimuluaren beraren bertsio areagotuan, eragindako erantzuna biziagoa da jatorriko estimuluari ematen zaiona baino, eta, hala, alde batera uzten da estimulu erreala.

Nerabezaroa aro konplexua da, aldaketa fisiko, psikologiko, sozial eta sexual ugari ekartzen baititu. "Adin horretan, ez da gomendagarria pornoa eskura izatea. Haien garapen kognitiboak ikusten ari

direna guztiz ulertzea galarazten die, beste zenbait irudi asaldagarri, bortitz eta barneratzeko zail bezala", ohartarazten du Save the Childrenek argitaratutako Tenemos que hablar de porno (Pornoaz hitz egin behar dugu) gidaliburuxkak. Hala ere, Ibai Fresnedo Hiruki Larroako kideak behatu du, bai nerabeekin bai helduekin egindako prestakuntza-saioretan, "pornografiak berdin eragin diezaiekeela batzuei zein besteei. Pentsatu ohi dugu errazagoa dela nerabeei eragitea, haien infantilizazioa dela-eta, baina pentsamendu kritikoak, adinarekin baino gehiago, heldutasunarekin du zerikusia", argitu du.

RTVEko La2-ek emandako Mayores de 18 (18tik gorakoak) dokumentalean azaltzen denez, adingabeek pornografiaren menpekotasuna edukitzeko arriskua handiagoa izateak arrazoi zientifikoa du. "Sexu-plazerrak % 200 handitzen du dopamina-kantitatea garuneko sari-sisteman. Hau da, ia morfinak beste. Kortex prefrontalak ondorioak ezagutzen ditu, eta suetakiarena egiten du. Hala ere, hogeitertirik aurrera garatzen da guztiz, ez lehenago. Adingabeentzat, pornoa ikustea garunean morfina-dosi bat sartzearen parekoa da, beren burua babesteko gai izan baino hamarkada bat lehenago".

Sexu-gidoia eskuratzea

Nerabeek modu bat baino gehiagotan jasan dezakete pornografia berriaren imajinarioaren eragina, baina ez denek era berean, generoen sozializazioa desberdina da eta. "Mutilei, betetzen oso zailak diren aurreikuspenak sortzen dizkien pornoak. Uste


ZABALEAN

AMPLIANDO

dute subjektu aktiboak izan behar dutela beti, ekimen handikoak, oso maskulinoak eta sexuan jarduteko unean oso oldarkor-rrak. Neskek interpreta dezakete subjektu pasibo eta otzanak izan behar dutela, gizona desiren eta begiradaren zerbizura. Nabarmentzekoa da, era berean, eduki horietan azaltzen zaien hiperfemeninotasun-kontzeptua (guztiz depilatutako gorputzak, makillajea, takoiak, bular handiak...), dio Fresnedok.

Baina ondoriorik larrietako bat sexu-gidoi bat eskuratzea da. 300 film porno inguru behatu ondoren egindako azterlan baten arabera, film horien % 88,2tan emakumeen aurkako indarkeria fisikoa dago. Talde-bortxaketen bideoak dira webguneetan gehien ikusi eta bilatzen direnetakoak. "Pornografia hegemonikoak sexu-indarkeria eta bortxaketak erotizatzen ditu, baita emakumeen oinazea, sufrimendua, beldurra, blokeoa eta larritasuna ere", deitoratzen du La Sur elkarte feministak, <https://geoviolenciasexual.com/webgunean>.

Atari horretan, estatuan salatutako taldeko sexu-erasoak kontatzen dituzte: 211, 2016tik. "Pornografiak, maiz, bortxaketari buruzko gidoi soziala erreproduzitzen laguntzen du", azpimarratu du Fresnedok. "Hala ere, beti esango dut denbora gehiegi ematen dugula pornografia bortxaketen eragilea izateaz kezkatzen. Egiazki, bortxaketaren kultura bera eta hura sustatzen duten egitura guztiak borrokatu beharko genituzke".



Proposatutako irtenbideetako bat eduki pornografikoak murriztea da. Haatik, pornoaren negozioak "750 milioi webgune ditu mundu osoan"; Dale una vuelta-k, pornografia-kontsumo kaltegarriaz sensibilizatzeko proiektuak emandako datuen arabera. "Urtero 230 milioi app porno deskargatzen dira, eta irabaziak 97 mila milioi dolarrekoak dira". Datuok ikusita, utopikotzat jo daitezke eskaintzaren eta

eskariaren indarrak geldiarazteko saia-kerak. "Gure lana tresnak eskaintzea eta eskuragarritasuna ematea da, eredu eta ikuspegi desberdinak erakutsiz. Lehenetsuna erroetara jotzea eta nagusi den sexu-eredua aldatzea da, haren sostengua den egiturari eraso eginez. Eta bide horretan, gure altxorrik handienak pentsamendu kritikoa eta, jakina, irmotasuna izango dira". Sekula ez mugatzea eta debekatzea", adierazi du Fresnedok.

Interesgarria / De Interés

LIBURUA



1, 2, 3... IPURDI!

Milak igerileku handira egingo du jauzi, ausartuko al da?

Aldageletan ikusteko asko dago: gorputz biluzi berdin eta ezberdin ugari.

Ipuin ez sexisten Gida Kolektiboa. Parean elkarte

LIBURUA



JONEK JONE IZAN NAHI DU

Irakurtzeko eta jolasteko proposamen honetan, akordeoi baten gisa testua eta imajinak aurkezten dira. Liburuan zehar Jonek handitzean kotxe gidaria izan nahi duela ikusiko dugu, abioneta pilotu, marinel...

Ipuin ez sexisten Gida Kolektiboa. Parean elkarte

LIBURUA



GU GARA MARIMATRAKAK

Gu gara marimatrakak, iji eta aja, barre eta zalaparta, neska pare aparta.

Ipuin ez sexisten Gida Kolektiboa. Parean elkarte

Hezkuntza Sailak eta Ikerbasquek emakume ikertzaileen lana aitortu eta bistaratu dute

Miren Cajaravillek, Malu Martínez-Chantarek eta Paola Ferrariok ikertzaileak euren ibilbideagatik aitortu eta jaso zuten.

Emakume ikertzaileen jarduna aitortzeko hirugarren edizioa izan zen. Ekimenaren helburua Euskadiko emakume ikertzaileak bistaratzeko, ikertzaileen belaunaldi berrientzat eredu eta inspirazio izan daitezela.

Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburu eta Ikerbasqueko presidentea buru, Euskal Autonomia Erkidegoan ikerketan diharduten hiru emakumei aintzatespenak banatu zitzaizkien Miren Cajaraville, Malu Martínez-Chantar eta Paola Ferrariori, hain zuzen ere. Ekitaldian Euskal Sistemaren arduradunek parte hartu zuten.



Hauxe izan zen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Ikerbasquek emakume ikertzaileen jarduna aitortzeko antolatzen zuten aintzatespenen hirugarren edizioa. Berez ez da sari bat, Euskadiko emakume ikertzaileak eta horien lana bistaratzeko modu bat baizik, ikertzaileen belaunaldi berrien eredu eta inspirazio izan daitezela.

Emakume ikertzaileen aukeraketa Ebaluazio Batzorde batek hartu zuen bere gain eta aho batez, erabaki zuen 2021eko edizioan sari-tuak izango ziren ikertzaileak euren ikerketa lanen hiru kategoriatan, alegia, ibilbide zientifiko osoa, ikerketa-esparru bateko lidergoa eta ikertzaile gazte baten ekarpen nabarmena.

Adineko emakume askok pairatzen duten ezkutuko indarkeriaren aurrean adi egoteko eskatu dio Emakundeak gizarteari

Azaroaren 25a Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta horren inguruko kanpaina egin da. Eta beren etxeetan urte askoan indarkeria jasan duten adineko emakumeen benetako testigantzetan oinarrituta dago. [Informazio Gehiago](#)

BA AL ZENEKIEN?

Save the Children ha alertado en su nuevo informe, 'No es amor', de la normalización de la violencia de género entre adolescentes y su invisibilización. 1 de cada 3 adolescentes de entre 14 y 17 años sufrieron violencia por parte de su pareja o expareja en la CAV durante el año 2019.

IKERKETA IKUSI

IBAI FRESNEDO



Ibai Fresnedo Hiruki Larroxako eta Euskal Herriko Sexu Askapen Mugimenduko (Ehgam) kideak pornografiari buruzko online prestakuntza emango du urtarrilean, irakasleei zuzenduta. Bere lan-ibilbidearen azken 15 urteetan, pedagogia feministei, sexualitateari eta indarkeria matxisten prebentzioari buruzko proiektuak garatzen eta prestatun-tza eta aholkularitza ematen jardun du. Halaber, zenbait hedabide eta kultur proiektutako kolaboratzailea da.

Pornografia ikusten hasteko batez beste adina 8 urtera jaitsi da. Esan daiteke gazteenentzako sexu-eskolarena egiten ari dela pornografia?

Zoritxarrez, bai. Baina arazoa ez da zein adinetan kontsumitzen den pornografia; arazoa gure itsutasuna da, haurtzarora eta nerabezarora sexu-garapenean funtsezko aroak direla ikustea eragozten baitigu. Jabetu beharra daukagu nerabeen desira bakarria ez dela trebezia eta/edo gaitasun akademiko jakin batzuk eskuratzea; arlo guztietan dira desiratzaileak. Izaki sexual eta desiratzaileak direla ez aitortzeak tabu bihurtzen du sexualitatea, eta horren ondorioetako bat da, besteak beste, pornografia kontsumitzea helduek jakin gabe.

Zure ustez, pornografiaren industria-erentzat kontsumitzaile-multzo estrategikoa dira nerabeak?

Jakina! Eta ez pornografiaren industriak bakarrik; hala jokatzeko dute kultur arloko industria garaikide guztiek. Nerabeek, berez, esperimintatu beharra dute, egoerak mugaraino eramane eta, noski, asmatzeko huts egin beharra dute; beraz, funtsezko targeta dira esperientziak saltzen dituzten sektore guztientzat. Pornografiaren industriak, gainera, existitzen diren askotariko jarduerak erotikoko etiketatzen ditu (oso didaktikoki), erraz kontsumitzen diren eduki pornografikoak sortzeko. Eta horrela ikasten eta parte-

katzen dituzte nerabeek ezagutza eta eduki erotikoa, eskolako ikasgaiak izango balira bezala.

Uste duzu eduki horiek kezkatzeko moduko aldaketak eragiten ari direla harreman afektibo-sexualetan?

Erreferentzia bakarria bada, pornografia engainagarria izan daiteke. Lehenik eta behin, baimenaren mugei dagokienez. Erakusten dizkigun pertsonaiak une oro kitzikatuta dauden sexu-makinak dira, beren bulkada eta desioen menpekoak. Gauzak horrela aurkeztuta, hartu-eman erotiko guztietan egon behar duten kontsentsuak ikusezin bihurtzen dira. Gainera, tematzea naturala dela adierazten da, eta erotismoz janzten dira botere-abusu agerikoa –indar fisikoaren, derrigor-tzearen edo xantaia emozionalaren bidez egindakoa– duten eszenak. Pornografiak, maiz, bortxaketari buruzko gidoi soziala erreproduzitzen laguntzen du. Hala ere, beti esango dut denbora gehiegi ematen dugula pornografia bortxaketan eragilea izateaz kezkatzen. Egiatzki, bortxaketaren kultura bera eta hura sustatzen duten egitura guztiak borrokatu beharko genituzke.

Irakasleek badute tresnarik gai horiek ikasleekin lantzeko?

Irakasleek, oro har, ez dute tresnarik sexu-hezkuntza lantzeko, eta, zehazki, pornografiaren gaia jorratzeko. Ikasleen eguneroko bizitzaren osagai bat izan arren, hezkuntza formalak ez du aztertzen, eta oraindik ere erronka da, eta, batez ere, tabua. Emango dudana prestatuntza gai horri buruzkoa izango da, hain zuzen ere: pornografia. Nola ulertu behar den, sexu-hezkuntzarako beste lanabes bat izan dadin. Prestakuntza online emango dut, urtarrilean, Berritzegune Nagusiaren aniztasun- eta bizikidetzatza-erloari esker.

Zure iritziz, gaur egun ematen den sexu-hezkuntza kritikoa da gazteek kontsumitzen dituzten eduki pornografikoekin?

Benetako arazoa da sexu-dimentsioak berak ez duela lekuri gure hezkuntza-sisteman. Ahal bezala egiten dira gauzak. Askotan, familiak eurak oztopo dira ikasgeletan sexu-hezkuntza jorra-

tzeko. Orain dela urte batzuk, Gasteizen, Porno Eskola eratu zen. Baina moralismoaren, elizako egituren, elkarrekin konterbadoreen eta eskuindarren eta guraso-elkarrekin baten eraginez desagertu zen. Horrek argi erakusten du arazoa ez dela pornografia, ideia eta/edo jardunbide atzerakoiak eta zigorzaleak onartzen dituen gizartea baizik. Beste batzuetan, irakasleek uste dute ez dutela gaitasunik bizitzarako formula matematiko bat baino askoz beharrezkoagoak diren edukiak lantzeko. Eta, azkenik, bai hezkuntza-curriculumak (benetakoak eta ezkutukoak, ez hainbeste formalak), bai eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuak ere, eragin handia dute sexu-hezkuntza erdigunean egoteko eta zehar-lerroa izateko ala ez.

Nola aplikatu dakieke gaitasun kritikoa zuzenak ez diren sexu-fantasiei?

Gustuko izan ala ez, sexu-iruditeria den modukoa da, eta dauzkagun desioak dauzkagu. Kontua, “zer” baino gehiago (kasu honetan, jardunbide bat), “nola” da. Eta “nola” horren erantzunak “baimenduta” izan behar luke beti. Gaitasun kritikoa edukitzea gizarte matxista, LGTBfobo eta arrazista batean gaudela ikusten jakitea da, egitura heteropatriarkal, kapitalista eta kolonialisten pean bizi baikara. Eta, ondorioz, gure harreman sozialak etengabeko menperatze-menpekotasun logika baten arabera eraiki eta egituratzen dira. Esan gabe doa logika horrek zeharkatu egiten dituela generoa, klase soziala, jatorria eta gorputzaren bidez adieraz ditzakegun identitate sozial guztiak. Sexualitatea, esate baterako. Baina horretaz jabetzeko tresnak behar ditugu. Benetan ez-zuzena, nire ustez, bide moralista, sexofobo eta dogmatikoetatik joatea litzateke.

